

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

2021eko abuztuaren 30ko 2021/307 Alkatetza Dekretuaren bidez onetsitako erabakiaren laburpena, zeinaren bidez Amurrion ekonomia zirkularra, konponketa edo/eta autokonponketa sustatzen duten negozio lerro berriak ezartzeko laguntza ekonomikoak, norgehiagoka-erregimenekoa, onesten den

BDNS(Identif.): 581632

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak. (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/581632>).

Lehenengoa. Onuradunak

Pertsona autonomoek, sozietate zibilek, ondasun erkidegoek, pertsona juridikoek nahiz irabazi asmorik gabeko elkarteek, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Ekonomia zirkularreko, konponketako edo autokonponketako negozio lerro berri bat ezarri edo martxan jarri badute 2021eko urtarrilaren 1a eta 2021eko azaroaren 30a bitartean.
- Altan emanda egon badira Ekonomia Jardueren gaineko Zergan.
- Egunean badituzte Gizarte Segurantzarekiko, Arabako Foru Ogasunarekiko eta Amurrioko Udalarekiko betebeharrak.
- Laguntzarekin sustatu nahi duten jarduera Amurrion garatzen badute, helbide soziala eta fiskala bertan egonik. Halaber, laguntzaren onuradun izan ahalko dira udalerrian kokatutako jarduera bati lotutako establezimendua duten pertsona fisikoak.
- Jardueren udal erregistroan alta emanda badaude (berariaz egiaztatuko da ea horretarako gaitzen duen udal titulua daukaten).
- Gehienez ere 25 langile badituzte (kontratutako pertsonen eta autonomoen batura), betiere lehen deskribatutako baldintzaren bat betetzen ez duten enpresak ez badira partaidetza/lotura duten enpresen ehuneko 25 baino gehiago.

Bigarrena. Helburua

Amurrioko irabazi asmorik gabeko elkarteetan edo enpresetan ekonomia zirkularra, konponketa edo/eta autokonponketa sustatzen duten negozio lerro berriak ezarri edo martxan jartzearen ziozko inbertsioak eta gastuak diruz laguntzeko laguntzen emakida arautzea, laguntza horiek itzuli behar izanik gabe.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

2021eko maiatzaren 27an onetsi ziren, Amurrioko Udaleko Udaltzaren erabaki bidez, eta eduki osoa urte bereko abuztuaren 6ko ALHAOn (88. zenbakia) argitaratu zen.

Laugarrena. Zenbatekoa

Egindako gastuaren edo inbertsioaren ehuneko 75 gehienez; enpresa bakoitzeko 4.000,00 euroko mugarekin.

Erakunde onuraduna gizarte ekonomiako enpresa bat edo irabazi asmorik gabeko elkarte bat bada, diruz lagunduko den zenbatekoa ehuneko 10 handiagoa izango da.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea laguntzen deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2021eko azaroaren 30ean bukatuko da.

Amurrio, 2021eko abuztuaren 31

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA